

Museoak, Bakea eta Giza

Itsasoratze Artibista

Arterapia eta artibismoa

La Embarcada Artivista

Arterapia y artivismo

Eskubideen Bilduma IV



Gernikako Bakearen Museo Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Itsasoratze Artibista

Arterapia eta artibismoa

La Embarcada Artivista

Arterapia y activismo

Editoreak / Editores:



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo de la Paz de Gernika

Foru Plaza 1, 48300 Gernika-Lumo - Bizkaia, EUSKADI - Tel +34 946270213
museoa@gernika-lumo.net / www.museodelapaz.org

Liburuaren kordinatzailea / Coordinadora del libro: Iratxe Momoitio Astorkia

Copyright: Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Gernika Gogoratuz Fundazioa eta autoreak

Bilduma: Museok, Bakea eta Giza Eskubideen Bilduma IV

“Itsasoratze artibista” ekimenaren kordinatzaileak / Coordinadores de la iniciativa “La embarcada artivista”:

Alex Carrascosa (Artibista eta ekimenaren kordinatzailea)
Iratxe Momoitio Astorkia (Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa)
Maria Oianguren Idigoras (Gernika Gogoratuz Fundazioa)

Erakunde honen diruloguntzari esker / Gracias a la ayuda de:



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

ISBN: 978-84-945379-1-2

D.L: BI-118-2017

Eskerrak / Agradecimientos:

DSS2016 ko lan taldeari, eta bereziki, Bakearen Itsasargiko Inesa Aristimuño eta Arrate Velascori.

“Itsasoratze” bakoitzean parte hartu duten partehartzaile, erakunde eta hizlari guztiei /
A todas y todos los participantes, organizaciones y ponentes en cada una de las “embarcadas”.

Ekimen hau aurrera eraman duen lan taldea / Grupo de trabajo que ha llevado a cabo esta iniciativa:


Alex Carrascosa, Iratxe Momoitio, Maria Oianguren, Idoia Orbe, Andreas Schäfter.

Ekimenaren bideoen edizioa / Edición de los videos de la iniciativa: Borja Marín Tamayo

Diseinua eta inprimaketa / Diseño e impresión: Estudios Durero - www.estudiosdurero.com

**Autore bakoitzaren artikuloaren edukia, autorearen erantzunkizunekoa da.
La responsabilidad de los contenidos de los artículos incumbe exclusivamente a los autores.*

Itsasoratu zaitez gurekin!



¡Embárcate con nosotros!

AURKIBIDEA - ÍNDICE

SARRERA - INTRODUCCIÓN

DSS2016EU - Xabier Poya Ruiz	8
Gernika Gogoratz Fundazioa	
Fundación Gernika Gogoratz - María Oianguren Idigoras	10
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa	
Fundación Museo de la Paz de Gernika - Iratxe Momoitio Astorkia	14
Itsasoratze Artibista	
La Embarcada Artivista - Alex Carrascosa	18

ITSASORATZEAK - EMBARCADAS

Itsasoratze Artibista: Arterapia eta Artibismoa	
La Embarcada Artivista: Arterapia y Artivismo	40
Bitakora kaiera - Cuaderno de bitácora - Alex Carrascosa	42
Ekintzen aurkibidea - Índice de actividades	70
Programak - Programas	72
Bideoak eta kartelak - Videos y carteles	126

ERAKUSKETAK - EXPOSICIONES

Bakea josiz: Gatazka, Arpillerak, Memoria - Cosiendo Paz: Conflicto, Arpilleras, Memoria	130
Itsasoratze Artibista - La Embarcada Artivista	142
L'embarquée Artiviste - The Artist Sailing	162



ERANSKINAK - ANEXOS

Zapalduen Antzerkia

Teatro del Oprimido

Birgit Fritz

To liberate to from to - a challenge for activists of the 21st century to reinvent themselves 176

Bakea Josiz: Arpillerak, Gatazka, Memoria

Cosiendo Paz: Conflicto, Arpilleras, Memoria

Begoña de Ibarra Zuazo / Iratxe Momoitio / Ana Garayalde

Arpilleras, resumen de un viaje por Euskadi 180

Roberta Bacic / Breege Doherty

Conflict, arpilleras, memory: an international human rights and memory initiative 184

Cecilia Domínguez Valverde

Visibilización de los inmigrantes en donostia: vulnerabilidad v/s acogida inclusiva 188

Antonietta Pardo

Raconter, ressentir, transmettre. Relation mère-fille 194

Roser Corbera

La Fundación Ateneu San Roc y el trabajo de las arpilleras 200

Mariona Zaragoza Saltó

Descubrir, poner hilo a la aguja y todo el camino por delante... 202

Itziar Gandarias Goikoetxea

Arpilleras en el aula: una experiencia comunitaria de intercambio entre Cataluña y País Vasco 204

Itziar Mardaras

Emozioak josten 210

Neus Bartrolí Pascual	
Tejiendo hilo de emociones, cohesión social y conciencia	212
Norbert Froufe	
Presentación de la experiencia de arpilleras en Palau-solità i Plegamans	220
Dr Marcela Palomino Schalscha - Dr Sara Kindon - Ms Katia Guiloff	
Latin american women stitching memories & lives in Wellington, aotearoa New Zealand	224
Elizabeth Doolan	
Arpilleras as archival records	230
Idoia Orbe	
Arpilleras: una maravillosa oportunidad para trabajar nuestra memoria reciente y pasada	234
Begoña de Ibarra Zuazo	
Hilos que conectan: la experiencia de la Encartada Fábrica – Museo de Balmaseda	238
Sarah Carson	
Stitching and unstitching the troubles	242
Kátia Filipini Neves	
La experiencia de las arpilleras en el memorial de la resistencia de São Paulo	246
Ana Zlatkes	
¿Qué se puede contar con una aguja y un hilo?	252
Esther Vital	
Arpilleras y empoderamiento de afectadas a defensoras de derechos humanos	258
M. Lynne Jenkins & Carolina P. Gana	
From the group room to the global stage: “Hilos resilientes – Cosiendo nuestras historias”	272
Emakumeak eta aktibismoa gatazkaren muintetik	
Mujeres y activismo desde el núcleo del conflicto	
Marina Gallego	
Mujeres pactantes constructoras de paz desde los territorios	274
Mugarteko eskubide eta ardurak: Lotsaren Hesiaren gainetik jauzika	
Derechos y deberes transfronterizos: Saltando el Muro de la Vergüenza	

Federico Guzmán ("Fico")	
El encuentro como obra de arte	278
Limam Boicha	
Breve recorrido poético e histórico por el Sáhara Occidental	288
Guztion Ongiaren Ekonomia	
Economía del Bien Común	
Begoña Pecharromán Ferrer	
La corresponsabilidad social ¿una forma de transformar la economía hacia el bien común?	292
Liher Gonzalez Bilbatua	
Olatukoop: ekonomia sozial eta eraldatzailea	300
Ivan del Caz	
7 claves para corregir la miopía económica	304
Gorka Egia	
Orendain, guztion onerako herria	308
Performance-a eta Antzerki soziala	
Performance y Teatro social	
Jennifer Miller	
Circus Amok: Performance and social theater	312
EkoAktibismoa	
EcoActivismo	
Vinod Kumar Bhatt	
Navdanya: a movement for biodiversity conservation and sustainable livelihoods	320
Julio Barea	
Prospecciones petrolíferas en aguas de las Islas Canarias	334
AMAIERA - CONCLUSIONES	342
KREDITUAK - CRÉDITOS	350

Sarrera

Itsasoratze Artibista





La Embarcada Artivista
Introducción



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



Xabier Paya Ruiz
Kultur programaren zuzendaria
Donostia 2016

ARTEA, BAKEAREN ALDEKO KULTURA

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak, sorburutik, xede hauxe du: artearen eta askotariko kultur adierazpenen bidez herritarrei tresnak eskaintzea, bizikidetza hobetzeko ahaldundu daitezzen. Asmo horri jarraiki, ehun egitasmo baino gehiago garatu ditu hiriburutzak, eta guztiek betetzen dute helburu hori.

Donostia 2016ren kultur programa banatuta dago balioetan oinarritutako hezkuntzari dagozkion kontzeptuak lantzen dituzten hiru itsasargitan: Bizitza, Ahotsak eta Bakea. Bizitzaren itsasargiak giza integritatea, gizarte gobernantza, eta ingurua ditu ardatz; Ahotsen itsasargiak partekatutako komunitate batean ageri den adierazpide, ondare eta irizpide aniztasuna jorratzen du; Bakearen itsasargiak, azkenik, bake eta begirune balioak zabaldu nahi ditu herritarren artean bizikidetza-esparru konpartitu baten eraikuntzari ekiteko ahaldundu daitezzen.

Itsasoratze artibista Bakearen itsasargian kokatutako ekimena da. Hiriburutzaren hautagaitza liburuan bertan, *Bake hazitegiak* izeneko proiektuak sortu nahi zuen "bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako ideiak eta programak ekoizteko laborategia", eta zeregin horri heltzeko bakearen eraikuntzan ibilbide luzea egindako bi eragile proposatzen zituen: Gernikako Bakearen Museoa, 2016an 18 urte bete dituen, eta Gernika Gogoratuz bakearen aldeko ikergunea, orain 29 urte sortua. Bi erakundeek

denbora luzea daramate proiektuak oinarritu dituen hiru lan-ildoak lantzen eta aztertzen: bakea, sorkuntza eta artea.

Bakearen eraikuntzan, bai komunitate akademikoaren alde- tik, bai mugimendu aktibisten ikuspegitik, gero eta nabar- menagoa da bakegintzak eta sorkuntza prozesuak dituzten antzekotasunak aztertu eta uztartzeko interesa. Berrikun- tza, gauzak orain arte ez bezala egiteko gaitasuna, askotan egoera bidegabe eta oldarkorrak gainditzeko ezinbesteko bidea izaten da. Aldi berean, sorkuntza artistikoak parale- lismo garrantzitsuak ditu bakearen eraikuntzarekin aldera- tuta: ezarritako edo ohiko moduak gainditzeko beharrezko askatasuna; irudi eta esanahi berriak amesteko beharra; ob- jektu eta subjektuen arteko erlazioak aztertu, probatu eta aldatzeko jakin-mina...

Artea, prozesu artistikoa, epe luzeko egosaldi motelekin erlazionatzen dugu, presarik gabe ondutako gogoetekin. Hala ere, proiektu honetan artibistak berehalako premiaren exigentzia, gure garaiko larrialdi sozialen aldarria du akuilu. Dударik gabe, itsasoratze artibistaren bidaian ikasitakoak balioko dio diseinatzeke European giza-, gizarte- eta ingurumen- eskubide eta betebeharrak betetzen lagunduko diguten sorkuntza prozesu terapeutiko eta aldarrikatzaileak, bizikidetza hobetzen lagun diezaguten.



Xabier Paya Ruiz
Director programa cultural
San Sebastián 2016

EL ARTE COMO CULTURA DE PAZ

La Capital Europea de la Cultura San Sebastián 2016, desde su inicio, tiene la siguiente misión: ofrecer herramientas a los ciudadanos y ciudadanas a través del arte y otras expresiones culturales, de forma que puedan empoderarse para lograr una mejor convivencia. La capitalidad ha desarrollado más de cien iniciativas, y todas ellas cumplen esa máxima.

El programa cultural de San Sebastián 2016 se distribuye en tres faros que trabajan distintos conceptos de la educación en valores: Vida, Voces y Paz. El Faro de la Vida aborda cuestiones vinculadas a la integridad humana, la gobernanza social y el entorno; el Faro de las Voces trata sobre la diversidad de expresiones, patrimonio y criterios presentes en una comunidad compartida; el Faro de la Paz, finalmente, pretende difundir valores de paz y respeto para empoderar a la ciudadanía con el fin de que participen en la construcción de un marco de convivencia compartido.

La Embarcada artista es una iniciativa englobada en el Faro de la Paz. Ya en el libro de candidatura de la capitalidad, el proyecto denominado *Semilleros de Paz* recogía la idea de “actuar como un laboratorio creativo de producción de ideas y programas relacionados con la paz y la convivencia” y proponía para su desarrollo dos agentes con un amplio recorrido en diversos ámbitos de la construcción de la paz: el Museo de la Paz de Gernika, que en 2016 ha cumplido la mayoría de edad, y el centro de investigación por la paz Gernika Gogoratuz, que nació hace ya 29 años. Ambas organizaciones

llevan tiempo trabajando y explorando las líneas de trabajo sobre las que se asienta el proyecto: paz, creación y arte.

Cada vez es mayor en el ámbito de la construcción de paz el interés tanto desde el ámbito académico como desde el activista por incorporar y explorar los mundos que tienen en común los procesos de pacificación y los creativos. La innovación, la capacidad de realizar las cosas de manera diferente a la que se estaban haciendo, a menudo resulta el camino necesario para poder establecer relaciones que superen los estados injustos y violentos. Al mismo tiempo, el campo de la creación artística tiene paralelismos importantes con el campo de la construcción de la paz: la libertad necesaria para poder trascender las formas habituales e instituidas; la elevación y necesidad de soñar nuevas imágenes y significados; la curiosidad y necesidad de investigar, probar e innovar en las relaciones que se crean entre sujetos y objetos...

Asociamos el arte, la labor artística, a tiempos de cocción lentos, a reflexiones elaboradas sin prisas. Sin embargo, en este proyecto el artista convive con la exigencia de la rapidez, con las urgencias sociales de nuestro tiempo. Sin duda, el proceso de aprendizaje desarrollado en la singladura de la embarcada artista le servirá para diseñar procesos creativos tanto terapéuticos como reivindicativos que promuevan el cumplimiento de los derechos y los deberes humanos, civiles y medioambientales en Europa, en aras de una mejor convivencia.

ITSASORATZE ARTIBISTA ARTEA BAKEAREKIKO KONPROMISOA

Aipamena egin nahiko nioke artearen eta bakearekiko konpromisoaren bidean egindako lanari, *"Itsasoratze Artibista: Arterapia eta Artibismoa"* proiektua diseinatu eta koordinatzen lagundu zuenari, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren Bakearen Faroaren testuinguruan. Lerro hauen bitartez, esker ona adierazi nahi diet 16 urteotan ibilbide honetan parte hartu duten pertsona guztiei, alegia, katalogo honetan aurkezten dugun proiektua burutzeria eraman gaituen bide honetan partaide izan diren guztiei.

Hiribilduan finkatutako hiru fundazioen arteko sinergia instituzionala sortu zenean hasi zen Artea eta Bakea lan-ildoak fruiturik onenak ematen. 1998. urtean hasi ziren Gernikako Kultur Etxea, Gernikako Bakearen Museoa eta Gernika Gogoratzuz Bakearen Aztertegia elkarlanean eta, gerora, *Gernikako Arte eta Bakearen Nazioarteko Topaketak* antolatzea erabaki zuten duela hamahiru urte. Lehendabiziko edizioa 2003. urtean egin zen *"Guernica"tik Gernikara*

lelopean; eta 2005ean Bakearen aldeko "Museoen Nazioarteko V. Kongresuaren" esparruan garatu zen topaketa. 2007. urtean III. Topaketan «Hiritarron partaidetza bake prozesuetan artearen bidez» gaia jorratu zen 2009an «Gatazka arteko artea» proposamena jaso zuen IV. Topaketak. 2012an, *"Kids'Guernica" Nazioarteko Arte Proiektua* plazaratu zen V. Topaketan, eta mundu osoko ikasleek pintatutako mihisez jantzi zen hiribildua. Proiektu hura bera egin da aurten ere Donostian, Bakearen Milia ekimenaren eskutik. 2012. urtean, eta 75. urteurrenaren testuinguruan, *"Nazioarteko Arte, Memoria eta Demokrazia Kongresua: Picassoren "Guernica"tik garakidetasunera"* kongresua antolatu zen Gernikan, Bilbon eta Madrilan. Kongresuak Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU) parte-hartzea izan zuen, baita Fundación 2012 Fundazioarena eta Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionalaren parte-hartzea ere. Urte berean, *"Artea eta Justizia Sozialari buruzko Nazioarteko III. Konferentzia"* jaso zuen Gernikako Bakearen Museok. 2004.



María Oianguren Idigoras
Zuzendaria
Bakearen Aldeko Aztertegia
Gernika Gogoratuz Fundazioa

urtean, VI. Topaketan alegia, literaturak eta, bereziki, poesiak bizikidetzan izandako ekarpena aztertu zen: *Bakearen Hizkuntza, Bakearen Hezkuntza*».

Artearen eta Bakearen lan-ildo horrek inspiratzen ditu Bakearen Museoaren zein Gernika Gogoratuz zentroaren prestakuntza-ibilbideen proposamen metodologikook, eta horretan oinarrituta sortu dira zenbait material, besteak beste *El bombardeo de Gernika. Pedagogía de paz a través de la memoria y del arte* material didaktikoa (2008) eta Alex Carrascosaren *Dia-Tekhne, Diálogo a través del arte* lana (2010). Urte hauetan guztietan, zenbait espazio sozial dinamizatu dira eta arte-adierazpenaren ekarpenaz baliatu izan da *Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko Jardunaldietako saioetan*, 1991tik aurrera hiribilduaren bonbardaketa oroitzeko ekitaldien testuinguruan; baita, 2013. urtetik, Antimilitarismoari eta Memoria Historikoari buruzko Jardunaldietan ere, Astran

Gure mugetatik harago, lan-ildo honek eragina izan du nazioarteko lankidetzari buruzko programa ezberdinetan ere, besteak beste Espainiako Enbaxadak Bolivian antolatutako «Arte y Cultura de Paz» Hitzaldietan (2010). Horretaz gain, ekarpena egin izan du, baita, Guatemalan 2008 eta 2011 urte bitartean, «*Garidka: Fortalecimiento de valores y acciones para la convivencia pacífica en el territorio amazónico en Colombia*» eta «*Kaji Tulam: Memoria, Verdad, Justicia y Reconciliación en Guatemala*» proiektuen testuinguruan sortutako prestakuntza programetan eta dinamika sozialetan.

Amaitu berri den bidaia honi esker, gai gara orain lehorrera heldu eta egindako esfortzuaz jabetzeko. Esfortzu handia, liburu honetan islatuta dagoena, baita datorren 2017 urteko udaberrira bitarte Gernikako Bakearen Museoan izango den erakusketan ere. Data hori heltzen denean, berriro ere ontziratuko gara, norabide argirik gabe; baina, betiere, giza eskubideen eta bakearen defentsan ekarpena egiten jarraitzea ahalbidetuko diguten aukerez jositako itsaso batean nabigatzeko prest.

LA EMBARCADA ARTIVISTA ARTE Y COMPROMISO POR LA PAZ

Quisiera hacer una mención a un recorrido a través del arte y el compromiso por la paz que contribuyó a diseñar y coordinar el proyecto *“La Embarcada Artivista: Arterapia y Artivismo”* para el Faro de la Paz de la Capital Europea de la Cultura, Donostia-San Sebastián 2016. Estas palabras quieren ser un agradecimiento a todas las personas que en estos 16 años han participado en esta travesía y que este último año nos ha llevado a embarcarnos en el proyecto que en este catálogo presentamos.

La línea de trabajo Arte y Paz empieza a dar sus mejores frutos a partir de la sinergia institucional de las tres fundaciones asentadas en la villa, la Casa de Cultura de Gernika, el Museo de la Paz de Gernika y el Centro de Investigación por la Paz Gernika GogoratuZ. Tras una labor conjunta iniciada en 1998 acuerdan organizar los *Encuentros Internacionales de Arte y Paz de Gernika*, hace trece años. La primera edición se realiza en el 2003 con el lema *“Del “Guernica” a Gernika”*, en el 2005

el II Encuentro se desarrolla en el marco del V Congreso Internacional de Museos por la Paz. En el 2007, el III Encuentro aborda *“La participación ciudadana a través del arte en la construcción de la Paz”*. En el 2009, el IV Encuentro recoge la propuesta *“Arte en medio del conflicto”*. En 2012, el V Encuentro expone *“El proyecto Internacional de Arte “Kids’Guernica”* que permite vestir la villa de lienzos pintados por estudiantes de todo el mundo. Proyecto este que se ha realizado, también, de la mano de la iniciativa de la Milla de la Paz, en Donostia-San Sebastián. En el 2012 y en el marco conmemorativo del 75º aniversario se organiza el *I Congreso Internacional Arte, Memoria y Democracia: del “Guernica” de Picasso a la contemporaneidad”*, en Gernika, Bilbao y Madrid. El Congreso contó con la colaboración de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU), la Fundación 2012 Fundazioa y el Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía. El mismo año, acoge la *“III Conferencia Internacional Arte y Justicia Social”*, celebrado en el Museo de




María Oianguren Idigoras
Directora
Centro de Investigación por la Paz
Fundación Gernika Gogoratuz

la Paz Gernika. En el 2004, en el VI Encuentro, se analiza la contribución de la literatura, y en concreto, de la poesía a la convivencia *“Educación para la Paz: La letra con arte entra”*.

Esta línea de trabajo Arte y Paz inspira las propuestas metodológicas de los itinerarios formativos tanto del Museo de la Paz como de Gernika Gogoratuz y se elabora el material didáctico, *El bombardeo de Gernika. Pedagogía de paz a través de la memoria y del arte* (2008) y la obra *Dia- Tekhne, Diálogo a través del arte* (2010) del autor Alex Carrascosa. Durante estos años, se dinamizan diversos espacios sociales y se cuenta con el aporte de la expresión artística en las sesiones de las *Jornadas Internacionales de Cultura y Paz de Gernika*, organizadas en el marco de los actos conmemorativos del bombardeo de la villa desde 1991 y también en las *Jornadas Antimilitaristas de Memoria Histórica de Astra en Gernika*, que se organizan desde el 2013.

Más allá de nuestras fronteras, esta línea de trabajo contribuye a programas en el marco de la cooperación internacional, es el caso, de las Conferencias *Arte y Cultura de Paz*, organizadas por la Embajada de España en Bolivia, en 2010. Y acompaña a los programas formativos y dinámicas sociales en el marco de los proyectos *“Garidka. Fortalecimiento de valores y acciones para la convivencia pacífica en el territorio amazónico”* en Colombia y *“Kaji Tulam Memoria, Verdad, Justicia y Reconciliación”* en Guatemala entre los años 2008 y 2011.

Este viaje que recién llega a puerto nos permite desembarcar para apreciar el esfuerzo realizado, que se ve plasmado en la edición de este libro y en la exposición que permanecerá en el Museo de la Paz de Gernika hasta la próxima primavera del 2017. Fecha en la que volveremos a embarcarnos y, con rumbo abierto, navegar en un mar de oportunidades que permitan seguir aportando a la defensa de los derechos humanos y la paz.



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

BAKE KULTURA ARTEAREN BITARTEZ ERAKUTSIAZ

Hamasei urte bete izan dira, Gernikako Bakearen Museoa, Gernikako Kultur Etxea eta Gernika Gogoratuz Fundazioek Artea eta Bakearen gaita jorratzea erabaki zutenetik.

Hasieratik, oso argi izan genuen, gai hau landu ahal izateko, garrantzitsua zela oso, erakusketa berriak sortzea edota beste leku batzutan eginiko erakusketak ekartzea; hots, bakea, artea eta artistaren erlazio estuaz hausnarketa bat egiten zuten erakusketak; gerra eta arteaz egon zitezkeen beste milaka erakustetetatik harandi.

Horrelaxe 2000. urtean egindako gure lehenengo erakusketa "Berradiskidetzarako artea" zeritzona izan zen, William Kelly artista australiarraren (Arte Humanistaren inguruko fondo garrantzitsua duena) laguntza estimatuari esker.

Erakusketa hartan, agerian, kontzeptualki edota abstraktoki gai hauek jorratu zituzten artisten lanen ibilbidea erakusten

genuen. Gernikan ezezik, Europako eta Australiako beste leku batzuetara eramana izan zen ere.

Erakusketa arrakastatsu honen ostean, arlo honetan lan egiten jarraitzea oso inportantea zela pentsatu genuen (Gernikara hurbiltzen ziren bisitari edota turistei erakusteko) eta horrela, munduan zehar, gai hauetan lanean diharduten beste erakunde batzuekin elkarlanean (Hego Afrikako Art for Humnaity, Australiako Humanist Art, Txileko Colectivo Casagrande...) hasi ginen, ia beti -urte birik behin- ospatzen genituen Artea eta Bakearen Nazioarteko topaketekin bat egiten zutelarik.

2000.urtea eta geroko urteetan, berriak eta interesgarriak ziren tamaina ezberdinetako erakusketak ekarri genituen Gernikara, besteak beste, "Prints from the Peace Project" (1999), "Berradiskidetzarako artea" (2000), "Arte Humanista: leku sinbolikoak"(2005), "Bake Hatzak" (2007), "Artea eta Giza Eskubideak"(2008), "Dia Tekhne: artearen bitartezko



Iratxe Momoitio Astorkia
Gernikako Bakearen Museoa
Fundazioko zuzendaria

elkarrizketa”(2010), “Kids’ Guernica”(2012) , “Giza eskubideen aldeko tirak” (2013), “Zibilizazioen arteko elkarrizketak”(2014), William Kelly-ren bannerrak...


Erakusketa hauetaz gain, Bakea, Giza eskubideak, berradiskidetzeari gaitzak jorratzen zituzten Performance artistikoak ere hurbildu genituen Gernikara, besteak beste, “Sua eta Argia Plazan” (2001), “Olerkien bonbardaketa Gernika gainean” (2004), “Spiritual figures: Passages of Peace in the Plaza of Fire and Light” (2005)...

Beraz, hamasei urteetan zehar egindako ibilbide honi esker, hiru erakunde hauen lana munduan zehar ezagutua izan da, gaitzak hauen inguruko erreferente bilakatu gaituelarik.

Ugariak izan dira, egindako lana azaltzeko, jaso izan ditugun gonbidapenak Australia, Japon, Korea, Hego Afrika bezalako leku urrunetatik edota Frantzia eta Katalunia bezalako leku hurbilagoetatik.

Itsasoratze artistak: arterapia eta artibismoa ekimenak, bi erakusketa berri eta interesgarri antolatuz abagunea eskeini digu, arte testila eta giza eskubide eta bakearen gaia estuki lotzen duen “Bakea josiz, Gatazka, Arpillarak, Memoria” arpillerei buruzko erakusketa (liburuaren barnekaldean ondo azalduta duzuen) eta ekimenaren izen bera duen “Itsasoratze artistak: arterapia eta artibismoa” erakusketa. Ilusioz beteriko –baina era berean konplexua izan den –nabigazioa eta hamaika portuetara heldu izan diren hiru itsasontzien bitakora kaiera azalduz; giza eskubide eta ardura, eskubide sozialak eta bere ardurak eta ingurugiroarekiko eskubide eta arduren itsasoen barrena –artearen bidez—gidatu gaituena.

Erakusketa eta performance hauei buruzko informazio zehatza museoaren web orrialdean www.bakearenmuseoa.org (erakusketa eta ekintzen ataletan).



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

MOSTRANDO LA CULTURA DE PAZ A TRAVÉS DEL ARTE


Fue hace más de dieciséis años, cuando el Museo de la Paz de Gernika, la Casa de Cultura de Gernika y Gernika Gogoratz decidieron abordar el tema de Arte Y Paz. Para trabajar este tema siempre tuvimos claro que era muy importante crear o traer exposiciones que ya reflejaban esa estrecha unión entre el arte, el artista y la cultura de paz, trascendiendo así a las miles de exposiciones existentes sobre arte y guerra.

La primera exposición propia que realizamos –gracias a la inestimable ayuda y colaboración del artista australiano William Kelly (quien posee un rico fondo sobre Arte Humanista)—se denominó “Arte hacia la reconciliación” (2000). En ella queríamos hacer un recorrido artístico por obras de arte que –de una manera más explícita o más conceptual y/o abstracta habían abordado estos temas.

Tras esta exitosa exposición que, no sólo se mostró en Gernika-Lumo sino que viajó a otros lugares de Australia y

Europa, pensamos que era importante dar a conocer a los visitantes locales y turistas, cómo habían reflejado los y las artistas el tema de la Paz y los Derechos Humanos a través de sus obras –coincidiendo casi siempre con los encuentros internacionales bianuales sobre Arte y Paz --.

En colaboración con otras instituciones que llevaban ya bastantes años trabajando dicho tema (Art for Humanity de Sudáfrica, Humanist Art de Australia, Colectivo Casagrande de Chile...) fuimos trayendo a Gernika exposiciones y talleres tan interesantes y novedosas como: “Prints from the Peace Project” (1999), “Arte hacia la reconciliación” (2000), “Arte Humanista: lugares simbólicos”(2005) , “Huellas de Paz” (2007), “Arte y Derechos Humanos”(2008), “Dia Tekhne: diálogo a través del arte”(2010), “Kids’ Guernica”(2012) , “La tira por los Derechos Humanos” (2013), “Diálogo entre civilizaciones”(2014), banners de William Kelly...



Iratxe Momoitio Astorkia
Directora de la Fundación
Museo de la Paz de Gernika

Así mismo, realizamos numerosas performances artísticas, instalaciones que pretendían abordar temas como el de la paz, los Derechos Humanos, la reconciliación... Performances que tuvieron un impacto social importante como “Sua eta Argia Plazan” (2001), “Bombardeo de poemas sobre Gernika” (2004), “Spiritual figures: Passages of Peace in the Plaza of Fire and Light” (2005)...

Este camino, recorrido durante más de dieciséis años, ha hecho que Gernika y las organizaciones arriba mencionadas que estamos detrás de estos proyectos, se conviertan en un referente mundial a la hora de hablar de Arte y Paz. Por ello, han sido muchas y variadas las invitaciones recibidas para exponer y explicar el trabajo realizado en lugares tan lejanos como Japón, Corea, Australia, Sudáfrica o más cercanos como Cataluña y Francia....

“La embarcada artista: arterapia y artivismo” nos ha ofrecido la posibilidad de volver a organizar dos nuevas exposiciones

--a lo largo de su extenso recorrido de más de un año—una dedicada al arte textil y su relación con el trabajo por la Paz y los Derechos Humanos como es el caso de las exposiciones “Cosiendo Paz: Conflicto, Arpilleras, Memoria” (luego se explica más detalladamente a lo largo de este libro) y la exposición final, “La embarcada artista: arterapia y artivismo”, con el mismo nombre que el proyecto que ha querido trasladar el cuaderno de bitácora de las once singladuras de esta ilusionante, pero --a la vez—compleja navegación por los mares de los derechos y deberes civiles, derechos y deberes humanos y derechos y deberes medioambientales a través del arte.

Información completa sobre estas exposiciones e instalaciones en la página web del museo www.museodelapaz.org (apartados exposiciones y actividades).

GIZA ESKUBIDE, ESKUBIDE SOZIAL ETA INGURUMENAREKIKO ESKUBIDE ETA ARDUREN ITSASO ZAKARRETAN BARNA

(ARTIBISMO EDO ARTEAREN BIDEZKO AKTIBISMO
SOZIAL ETA POLITIKOAREN AURREKARIAK)

SARRERA

“Itsasoratze Artibista” Gernika Gogoratzuz Bakearen aldeko Aztertegiak eta Gernikako Bake Museoa Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren Bakearen Itsasargiarentzat antolatutako ekimena da, gaur egungo erronka zibil, sozial eta ekologikoen aurrean arteak egin ditzakeen ekarpenen inguruko ikerketa-ekintza prozesu bezala sortua.

Kapitulu honetan² honako edukiak garatzen dira: lehenik, *artibismoa* (edo baliabide artistiko, kultural edo sortzaileen bidezko aktibismo sozial eta politikoa) hozitzen den baldintza historikoak aztertzen dira; bigarrenik, bitartekari *artibista* nagusien azaleratze edo, hobeto esanda, *insurjentzia* ere deskribatzen da; hirugarrenik, gaurko testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoa eta honek dakartzan erronkak ikertzen dira; laugarrenik, artibismoak erronka horiei ekiteko darabiltzan estrategiak behatzen dira; eta bosgarrenik,



Alex Carrascosa
Itsasoratze Artibistaren
koordinatzaile eta errazlea

«Uste dut arrazoi onak daudela iradokitzeko garai modernoa amaitu egin dela. Gaur, hainbat gauzak adierazten dute trantsiziozko aldakuntzan barna goazela, non baitirudi zerbait alde egiteko zorian dagoela eta beste zerbait minez jaiotzen ari dela; zerbait eraisten, desegiten, ahitzen dagoen bitartean beste zerbait, oraindik zehaztugabea, hondakinen artetik azaleratzen balego bezala»

Václav Havel,
“The Need for Transcendence in the Postmodern World”,
Philadelphia, 1994ko uztailak 4¹

“Itsasoratze Artibistaren” ekarpenen azalpen labur batekin bukatzen da.

Testu honek adierazten du Bigarren Munduko Gerraren ostean, gobernu askok (eta metropoliek hain zuzen) Giza Eskubideen karta paper gainean izenpetzen badute ere, eskubide horiek praktikan konkistatzen direla, injustiziaren eguneroko bizipenetik eta zapalketa gainditzeko hil ala biziko beharretik, edo norbere subjektibotasunaren eta

tratu duinaren merezimenduaren kontzientzia hartzetik. 60ko hamarkadaren inguruan emantzipaziozko erreakzioen bolada globala gertatzen da. Erreakzio horiek itxuraz banakakoak dira, baina esentzian lotuta daude. Giza sasoi berri baten ezaugarri dira Asia eta Afrikako herrien deskolonizazio eta autodeterminazioa, Amerika Latindarreko klase zapalduen askapena eta eskubide zibilen aldeko borroka Amerika eta Europa osoan. Eta urteak igaro ahala, lehen “kontzientziaren esnaera globala”, “kontzientziaren esnaera global” bihurtzen

da: munduan zeharko justizia sozialeko ekimenen arteko gero eta orkestrazio zabalagoa.

Borroka sozialetan askatutako energia sortzaileak badu eragina arte plastiko eta bisualen bilakaeran eta hain zuzen, formatu kontzeptual eta performatiboaren garapenean, zeintzuek artea bere ohiko euskarri eta disziplinez askatu eta eguneroko bizitzara eramateko joera baitute, *lifelike* art-en ildotik —*bizitza-bezalako-arte* edo *arte=bizitza*— Allan Kaprowek, *Happening*-en sortzaileak izendatzen duen legez. Beste batzuetan, ordea, gizarte dinamikek eta ihardukitze-eta eraldaketa-estrategiek eurek diziplina berriak —edo (*in*) diziplinak hobeto esan— sortzen dituzte, eremu artistikoa zabaltzeaz gainera, hauxe desafiitzen dutelarik.

Hirurogeien hasieratik hirurogeita hamarren erdialdera, Situazionista Nazioartekoak, kulturako langileen batzarrak⁴ bi (*in*)diziplina artibista inspiratzen ditu: Ikerketa Militantea eta Interferentzia (Kontra)Kulturala edo *Culture Jamming*. “Tucuman Arde” kanpainak beste (*in*)diziplina bat aurreratzen du: Mediaktibismoa. *Culture Jamming*-ak eta Mediaktibismoak, berriz, Komunikazioaren Gerrillaren oinarriak ezartzen dituzte, Guerrilla Girls edo Gran Fury bezalako kolektiboek ordezkatzeko (*in*)diziplina. Antzerkiak laugarren horma hausten du, ateratzen da kalera eta gerrillarekin ere bat egiten du. Eta ACT UPI, Mujeres Creando, Women’s Action Coalition, Reclaim the Streets! (RTS), Fiambrera, Chainworkers eta Yomango kolektiboek, besteak beste, (*in*)diziplina ezagun bat —Ekintza Zuzena— *Arte Eder* gisan proposatzen duten bitartean, artetik kanpoko beste ekimenak ekintza sozial, politiko eta ekonomikoaren aurrean artista batek mihise zuriaren edo landugobeko gaien aurrean dagien bezalaxe kokatzen dira.

KONTZIENTZIAREN ESNAERA GLOBALA

Bigarren Munduko Gerrari Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala darraio, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Parisen 1948ko abenduaren 10ean ebatzia, botere publikoen aurrean pertsona ororen oinarritzko eskubideak bermatzeko munduko edozein tokitan. Hala ere, lege nagusi hori gobernu sinatzaileen eskutik praktikan aplikatu ordez, herri eta kolektibo menperatuen bultzada emantzipatzaileen bidez betetzen da, potentzia menperatzaileei desafiaturik bai itsasoz bestaldetik, bai metropoliaren baitatik: GENTilizio edo jatorriagatiko borrorak (EEBBetako komunitate beltz eta latindarrak edo magrebtar eta antillarrak estatu frantsesean), GENeroagatikoak (emakumeak eta LGBT⁵) eta GENerazio edo belaunaldiagatikoak (gazteak). Izan ere,

errebeldia gehienen sustraian askatasun zibileko promes ororen aurkako traizioa datza indartsuenaren legearen mesedetan. Gizatiar historiaren ziklo belikoen eta hilgarriena, ia etengabea 1936 eta 1954 artean, beste sarraski milioidun batekin mukurutzen da, Vietnamekoarekin alegia. Telebistaz emandako lehen (eta azken)⁶ gerrak historiaren une inflexibo eta ordura arte ezagutu gabea pizten du: lehenbizikoz, herritarren kontzientziaren esnaera globalak *warlord*-ak eurak estutasunean jartzen dute.

Banako zein taldeko eskubideen gaineko kontzientzia ernatzeak Antigona du aitzindari, mendeetan zehar zenbait armadaren aurkako eragozpen-, intsumisio- edo desertzio-ekimen kolektibo ezagutzen ditu, eta hainbat eredu aipagarri ere, hala nola Thoreauren desobediencia zibila, mugimendu sufragista, eta maiztasun handiagoz XX. mendean, kontseilu edo batzarren iraultzak, Gandhiren *Satyagraha* edo faxismoaren aurkako erresistentziak. Dena den, ziklorik esanguratsuen, gerraren mundializazioa bezain zabala, 60ko hamarkadaren inguruan gertatzen da, 50en erdialdetik 70en erdialdera hain zuzen ere.

1955eko abenduaren lehen, Montgomeryko autobusean arraza zuriko pertsoneri erreserbatutako jarleku batetik altxatzeari uko eginez, Rosa Parksek Eskubide Zibilen aldeko Mugimendua abiarazten du. 1959ko urtarrilaren 1an Castro anaiek, Che Guevarak eta Camilo Cienfuegos, besteak beste, kubatar iraultza ezartzen dute. 1960an, Tunisiatik, Frantz Fanonek Aljeriako Askapenaren Gerra erdian, *Les Damnés de la Terre (Lurreko kondenatuak)* idazten du. 1960 eta 1964 bitartean Paulo Freirek Pernambuco, Iparraldeko Rio Grande eta Guanabara estatu brasildarretan lehen “Kultura Zirkuluak” eratzen ditu, eta bertatik, *iragankortasun kritikoa* sustatzen du «gizabanakoa testuinguruan duen posizioaz jabe dadila» (1965: 43-48). 1963an, Washingtonko “Lanpostuen eta Askatasunaren aldeko martxan”, Martin Luther Kingek «I Have a Dream» aldarrikatzen du, arrazen arteko elkarbizitzaren ametsa.⁷ Txileko erbestealditik, 1965ko udaberrian, Freirek bukatzen du *Hezkuntza askatasunaren praktika bezala* liburua. 1966ko amaieran, Estrasburgoko UNEFek (Frantziako Ikasleen Batasuna) Mustapha Khayati situazionistaren *Ikasleen bizitzaren lazeriaz* panfletoa kaleratzen du; eta urtebete geroago, Guy Debordek Espektakuluaren Gizartea argitaratzen du. 1967ko urrian, 50.000 ikaslek Pentagonoa inguratzen dute Vietnamgo Gerraren aurkako protestan; eta udazken horretan bertan Shulie Firestonek eta Kathie Sarachildek New York Radical Women-en (NYRW) “autokontzientzia taldeak” bultzatzen dituzte, zeintzuek «pertsonala dena politikoa da» kontsigna jendarteratzen baitute. 1968ko urtarrilean, Progan, Alexander

Dubčekek *udaberria* aurreratzen du “aurpegi gizatiardun sozialismoaren” eskutik. Parisen, ikasle errebolta industria nagusietara hedatzen dira eta Okupazioen Mugimenduak *xakean jartzen* du frantziar gobernuak. Protestak Alemaniako Errepublikaren Federalera (AEF) eta espainiar estatura barreiatu, eta Mexikoko ondokoatzen dira. 69an sartuta, Argentinan Cordobazoa lehertzen da, Ongania eta Levingston diktadoreen uzkaitez eta demokraziaren lehengoratzeko laburra eragiten dituen herri-matxinada. 1971ean “Don’t make a wave (Tsunami ez eragin)” komitea “Greenpeace” (“Bake Berdea”) izenarekin bataiatutako arrainontzian itsasoratzen da Alaskako Amchitka uhartedian egiten ari diren proba nuklearrak geldiarazteko; eta urtebete beranduago, Donella Meadowsek eta bere taldeak, Erromako Klubaren enkarguz, *Limits to Growth (Hazkunderaren mugak, 1972)* txostena argitaratzen dute, Rachel Carsonen *Silent Spring* eta Paul Ehrlichen *The Population Bomb* lanekin batera, munduko mugimendu ekologistaren genesis osatzen duena.

ARTIBISMOAREN SORBURU ETA INSURJENTZIAK

Testuinguru honetan, ezarritako ordenari ihardukitzeko ekintza sozial eta politiko ugari, nahita ala nahigabe, benetako birsorkuntza estetiko eta etikoak dira. Richard Schechnerrek, *Environmental Theatre*-ren sortzaileak, antzerki-infiltrazio forma berriak hautematen ditu *sit-in* edo eserialdian Pentagonoranzko eskubide zibilen aldeko martxan; edo *détournement* edo *desarruntze*⁸ eszena elokuentek, ere aipa litezke, 1967ko urriaren 21ean Jan Rose Kasmir emakume gazteak Guardia Nazionalaren baionetei lore bat luzatzen dienean (eta Marc Riboud Magnumeko argazkilarik erretratatzeko dituen). Era kontsekuentean, hiru urte atzerago Free Speech Mugimenduaren bozeramaileak, Mario Saviok, Berkeleytik 1964ko abenduaren 2an deklaratu zuen «makinararen funtzionamendua hain gorrotagarria denez eta ezin duzunean parte hartzen jarraitu, zure gorputza engranajeen artean, gorpulen azpian jartzea besterik ez dagoela, palankak, makineria osoa oztapatzen, erabat geldiarazi arte».⁹ Saviok eta Kasmirrek, lehenago Thoreauk eta beranduago, 1989ko ekainaren 5eko goizean Tiananmen Plazan tanke zutabearen aurrean paratutako “matxino ezezagunak”, edo ISMko (Nazioarteko Elkartasun Mugimendua) militantea zen Rachel Corriek, 2003ko martxoaren 16an israeldar armadako bulldozer batek zapalduak egingo zuten legez, haien bizitzak lan *estEtiko* bilakatzen dute.

Beste kasu batzuetan, asmo kreatiboa (sortzaile eta aktiboa) argi eta zuzena da. Adibidez, Amsterdameko Provo mugimendu kontrakulturalak 1965ean “Plan Zuriak” inplementatzen dituzte,

espazio publikoaren pertzepzio eta erabilpenaren alterazio kritikorako estrategiak, espazio publikoak eskaintzen dituen baliabideekin eurekin, hala nola giltzarraparik gabeko berrogeita hamar bizikleta zuri hiri osotik eskuragai jartzea, kotxearen ordean nornahik erabil ditzan; edo pisu eta etxe hutsen zerrendak astero publikatzea, okupatuak eta ustiatuak izan daitezke; eta bitartean, poliziaren berresangurutzeko haien ekintzen “egilekide” gisa, honexek betiere esku hartzen duelako.¹⁰

Artearen eta kulturaren mundua ere ez da ekimen emantzipatzaileen *insurjentzietatik* at gelditzen. Ekimen hauetariko batzuk arteari mugatutako espazioetan sortzen dira. Arte Bisualen Ikerkuntza Taldeak (GRAV)¹¹ artelan parte-hartzaileak diseinatzen ditu ikuslea haren mendekotasun geldotik irtenarazteko asmotan (esate baterako, *Mitoak irauli, 1969*koa). Eta harago joanez, Rosarioko (Argentinako) *Arte Esperimentalaren Zikloa*, 1968ko maiatza eta urria bitartean ospatua, «forma tradizionalekin hausten» saiatzen da, «errealitatearen konplexutasun eta berariazotasunak komunikatzeko ezgai direlakoan, eta arduraz dihardu errealitate hori transmititzeko ordura arte ezezagun izan diren bitartekariaren aurkikuntzan».¹²

Rosarioko *Arte Esperimentalaren Zikloaren* markoan *artibismo* edo artea eta ekintza sozial eta politikoaren aurrekari nagusietako bat gauzatzen da: “Tucumán Arde” (“Tucuman Sutan”) kanpaina. Une horretan, Onganiaren diktadurak Tucumaneko azukre-lantegien eraispenera ekiten dio, Argentinako ipar-mendebaldeko familia askoren bizimodua deuseztatuz, eta emigratzera eta sakabanatzera behartuz. Rosario eta Buenos Aireseko zenbait artista, kazetari eta soziologok ikusten dute (“Tucuman Operatiboa”, “Isiltasun Operatiboarekin” indartzen dela, Tucumaneko egoera larria ezkutatu, estali eta desitxuratzeko)¹³ eta «egitura bat asmatzen dute egunkarietako argitaratzea saihesten duten informazioa egunkarietan bertan filtratzeko».¹⁴ Lehenik, “Tucumán” hitza daramaten kartelak itsasten dituzte Rosario osotik, eta ondoren, «finduagoak» diren posterrak esekitzen dira *Abangoardiako Artearen I. Bienala* iragarritzat Lanaren Konfederazio Orokorren egoitzan. Beranduago, Buenos Aires eta Rosarioko artista abangoardisten ordezkariak batek Tucumanerantz «bertako arazoez “jobetzeko”» egingo duen bidaiaren berri emanarazten da hedabideetan. Delegazioak eskualdea bisitatzen du, biztanleria elkarrizketatu eta haien egoera, grabaketa, film, argazki eta testuen bidez dokumentatzen du; bitartean, “Tucumán Arde” esaera *grafiteatzen* da Rosarioko kaleetatik. Azkenik, Tucumanen bildutako material guztia *Artearen Bienalaren* inauguraziora deitzen diren egun eta toki berberetan erakusten da.

Ordudanik “Tucumán Arde” bezala ezaguna den proiektu honen bertutea bikoitza da: «batetik, kultur erakunde ofizialen ohiko zirkuituak “artelana xurgatzea” ekiditen du; eta bestetik, artelan bera (kontzeptual eta *estEtikoa*) eraldakuntza politikoko baliabide bihurtzen du» (Renzi).

Beste *insurjentzia* kultural eta artistikoen kultura eta artearen mugak eurak gainditzen dituzte. Situazionista Nazioarteari dagokionez, honek «situazioen arte zuzena» sustatzen du, laborategi baten neurriko esperientziak, errealitate arruntaren gaineko kontzientzia hartzean dautzanak; situazionistek “iragazki desideologizatzaile” bat ipintzen dute gizabanakoaren eta bere testuinguruaren artean, «eguneroko bizitzaren iraultza etengabea» ahalbidetu guran (I.S. II: 146; 153-154). Beste abiapuntu batetik, Joseph Beuysen “artearen kontzeptu hedatua” garatzen du, obra-objektua gaindituz obra-ekintza edo *operazioaren* bidez, esaterako: 1971an Düsseldorf-en sortzen duen “Plebisituaren bitarteko demokrazia zuzenerako erakundea” alderdien auto-legislazio eta diktaduraren aurka; edo 1973-74ko “Nazioarteko Unibertsitate Askea”, non ikasleek ahalduz eta burujabetze-prozesuak esperimendatzen baitituzte artearen eta diziplinarteko gaiak direla medio, hala nola ezagutzaren teoria, giza portaera, elkartasuna, kritikaren kritika, artearen kritika, antzezpena edo antzerkia, besteak beste (Stachelhaus, 1990: 124-125, 131). Beuysentzat «edozein pertsonak bere burua esperimendatu eta aitortu egiten du izaki sortzaile eta munduaren erotzaile bezala»; areago, «gizaki oro artista da, eta gizarte gorputza eraldatzeko ahalmen eta beharra ditu» (Ibid.: 77). Eta Augusto Boal antzerkigile brasildarraren kasuan, gatazka baten antzezpena proposatu eta gero, ikusleria antzezlaren espektadore bilakatzea gonbidatzen du, hau da, «objektua [antzezlana] ikusten duen subjektuari gaitzea objektua bera *subjektu* bihurtzeko —bere burua bera—; hortik norbere ekintzaren aldagaiak irudikatu ahal izateko; pintura asmatzeko gauza delarik antzerkia dagoeneko asmatu duelako, *ikusten duen bitartean bere burua ikusi duelako*» (2004: 26).

EKINTZA ZUZENETIK IKERKETA MILITANTERA

Provoen “Plan Zuriek”, Yippie alderdi gaztearen ekintzek, eta situazionistek espektakuluaren gizarteari dedikatutako kritikek edo 68ko maiatzeko paristar kaleetan aerosolez margotutako esakunek *artibismoaren* lehen (*in*)diziplina inspiratzen dute: Interferentzia (Kontra)Kulturala edo *Culture Jamming*-a. Tucumán Arde kanpainak, berriz, bigarren (*in*)diziplina *artibista* bat aurreratzen du: Mediaktibismoa, «informazio dokumentala eta politika

espresiboa bateratzen dituzten proiektu mediatiko ez normalizatuak, espektakuluaren gizartearen erreferentzia den masen telebistaren kontra ispiluzko lehian sartzen direnak» (Holmes).¹⁵ Esperientzia hauetan oinarrituz, gizarte eszenatokiko zenbait fokuetatik oldarka azaleratzen da beste (*in*)diziplina bat: Komunikazioaren Gerrilla edo menderakuntzazko harreman sozialien iraultza — nazionalismo zahar eta berria, sexismoa/patriarkatua, arrazakeria eta hauei guztioi dagozkien ekoizpen kapitalista mota ezberdinak— (a.f.r.i.k.a., 2006: 6).

1985ean Guerrilla Girls agertzen dira. Gorila mozorroez jantzita eta emakume hilen ezizenekin, artista feminista anonimoen kolektibo hau kartel, liburu eta panelez baliatzen da artearen munduko sexu-diskriminazioa eta arrazakeria salatuzko. 1987an ACT UP!¹⁶ eratzen da, HIESaren krisialdiaren aurkako ekintza zuzenak dagitza talde anitza, ez alderdikoia eta amorrak bateratua. Eta pandemiaren jendarte zabalagoa ohartarazteko, ACT UP!-en barruan Gran Fury¹⁷ kontrapublicitate-agentzia sortzen da urtebete geroago. 1992an, Mujeres Creando talde feminista eta anarkista osatzen da Bolivian eta New Yorken, berriz, Women’s Action Coalition (WAC) emakumeen aliantza irekia. ACT UP!-ekin batera, Mujeres Creando eta WAC laugarren (*in*)diziplina *artibista* batez baliatzen dira, Ekintza Zuzenaz alegia, azkenen kasuan «homofobia, arrazakeria, erlijiozko aurreiritziak eta bortxakeria matxistaren aurkako erresistentzia eta osasun arreta, haurren zaintza eta askatasun erreproduktiboaren aldeko sorkuntza».¹⁸

Ekintza Zuzenaren ildotik Reclaim the Streets! (RTS) eszenaratzen da handik gutxiro; hierarkiarik, liderrik eta egitaraurik gabeko talde ireki eta publikoa, kapitalismo globalaren arterien buxadura komunal eta indarkeriabatua izateko arrazoi duena. *Desorganizazio*¹⁹ hau M-11 autopistaren eraikuntzaren eta Londres ekialdeko hiri inguruko paisaiaren suntsipenaren kontrako mobilizazioetan sortzen da. *Artibistetako* bat den John Jordan-en hitzetan, «oraingoa ez da antzezenaren artea, presentziarena baizik: performancea garabia eskalatzean datza bitartean, politika obren geldiaraztean eta kontratisten atzerapenean datza» (2001: 370-371). Jordanek praktikara darabiztatza Thorearen (1849) eta Savioren (1964) hitzak eurak: norberak bere gorputza makinaren engranjeetan zuzenean kokatzen duenean, boterearen zirkulazioan erresistentzia puntu bat sartzen du, bere gorputza bera eraldatzen du gizarte industrialari haren ekintzak azaltzea eta bidezkatzea behartuz» (Ibid.: 372).

Provoek abiarazitako eta RTSek garatutako ohiturari jarraituz, *Fiambrea* izeneko ~~arte publikoko~~²⁰ talde autonomoek hiri-

espazioan esku sartzen dute edo behintzat, inbiliariei esku ez sartzea galarazten diete.²¹ Chainworkers-²² dagokionean, *webzine* honek argibide sindikal, foro- eta komunitate-zerbitzuak, laguntza juridikoa, erreibindikazio berriak aurkitzeko inkestak eta subvertising edo «despublizitate erasotzailea» eskaintzen dizkio prekariatuari.²³ Eta Yomango taldeak, bere aldetik, «desjabetua izan den gutzia gizaki ororentzat berreskuratzea» proposatzen du; xede horrekin, pribatizatutako gune publikoak *errepublikatu* egiten ditu, era mediatiko, ludiko eta umoretsu batez leku horietako joan-etorriak, portaerak eta mugimendu bakoitza inplizituki hesitzen dituen kodea hautsiz, prekarioen klase soziala osatzen duten askotariko langile uniformatuak eurak — zinpeko zaintzaileak, azafatak, kutxazainak, zerbitzariak edo begiraleak— jaira bertara gonbidatuz.

Beste ekintza zuzen asko, Artearen instituzioarekin zerikusirik ez duten edo berariaz artistiko ez diren inguruetatik, proposatzen dira. Vladimir Zivkovic Jugoslavia ohiko soldadu gaztearen ekintzak, Vukovarko setioaren kontra mutinatutako Valjevo dibisioko kidea zela 1991ko irailean Belgrad inor gabe hartzea erabakitzen duenean, gertaera gogoangarria izan beharko zuen, ez soilik gizateriaren historia orokorrean, baita ere artearen historia zehatzean ere, Led Art taldeak (Novi Sad, Serbia) agertzen duenez.²⁴ Zivkovicek tanke bat ostu, ezein kontrol-postutan gelditu barik 200 kilometro egiten ditu Belgradera arte, eta ibilgailu blindatua Parlamentu Federalaren aurrean bertan uzten du aparkatuta (Stevanovic, 2004: 70). Ekintza Zuzena antzerti-infiltraziotik harantz doa: ez da bakarrik artea aurkitzea arteaz kanpoko lekuetan, baizik eta artea bizitzara ekartzea, artea denetz axola gabe, *détournement*, *desarruntzearen* edo ziurtzat jotzen dugun errealtate ororen alterazio erreal, fisiko edo pertzeptiboaren bidez. Horrela definitzen du *a.f.r.i.k.a. gruppeko* Sonja Brünzelsek: «ekintza [zuzena eta politikoa] ezin da bereizi gauzak egiteko moduaren iritzi “artistiko” batez: ideia-asoziazioak ibiltzen uzteko bizkortasuna, akaberaren nolobaiteko txukuntasuna, eta sinesgarritasuna» (2001: 450-451). Arte Eder gisa, Ekintza Zuzenak artisten eta gizarte eragile edo mugimendu sozialen arteko elkarrizketa du *euskarri*, eta errealtatearen abordatze eta eraldakuntza kolektiboa *artelan*.²⁵

Situazionista Nazioartekora eta *Tucumán Arde*-ra itzuliz, zeharka lehenetik eta zuzenean bigarrenetik, (in)diplina artistista berri bat sortzen da *artea=bizitzaren* ildoan, jarrerak, erabakiak eta mugimenduak konprometitzen (eta askatzen) dituelako: *Ikerketa Militantea*, (auto) eraldakuntzarako laborategia eta norberegaren errealtatea behatu, iragazi, deskodetu eta objektibatzeke tresna.

